

KONTROL MOZIOA

MUGI ETA ONTZI-ALDAKETAK DIRELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko azaroaren 14ean, Gune Publikoko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko urriaren 21ean, Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzako tarifa integrazioaren batzordeak 2017ko apirilean indarrean sartuko diren Mugi tarifa berriak proposatu zituen, batzar orokorrera eramateko. 2016rako tarifa garrantzitsuenak igotzea erabaki bazen ere, oraingoan, aurreko legegintzaldiko joerari eutsita, prezioak izozteko hautua egin da, Mugi txartel Anonimoaren salbuespenarekin. Dena den, mugikortasuna jasangarriaren eta intermodalitatearen ezaugarri nagusietako bat ez da landu, izan ere, nahiz eta Mugi txartelaren erabiltzaileen ontzi-aldaketa intramodalak doakoak izan, ontzi-aldaketa intermodaletan oraindik (adibidez Euskotren-dBus edo Lurraldebus-dBus), bidaia garestiena %100 eta merkeena %25^a ordaintzen jarraituko da, edozein izanik bidaien hurrenkera.

Gai honetaz Udal-gobernua interpelatuta, adierazi zitzaigun Mugi sistemaren azken erabilera mota eta kopuruen (2015) azterketak ondorioztatzen duela, ontzi-aldaketa intermodalak doakoak izateak 200mila euro inguruko kostua izango zuela, eskumeneko erakundeen artean banatu beharrekoak (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostia eta beste hainbat udal).

Beraz, hipotetikoki, doako ontzi-aldaketen gastua onargarria izan daiteke eskumeneko administrazioentzat, baina garraio publikoari, MUGI sistemari eta donostiarrei sor diezaiekeen onura handiak izan daitezke. Donostiako Tranbia Konpainiari dagokionez ere, uste dugu onurak baino ez dizkiola ekarriko, doakotasuna ezartzeko Donostiako Udalak egin behar duen ekarpenarekin alderatuta:

1. Donostiarrentzat garraio publikoa erakargarriago eta sostengarriago bilakatzen da garraio-aldaketen azken prezioan merketze bat dagoelako.
2. dBusen eta gainontzeko operadoreek (Euskotren, Lurraldebus) lehiakortasunean irabazi dezakete, ibilgailu pribatuarekin alderatuta, erabilerak (eta ondorioz diru-sarrerak) handitu baititzakete.
3. Intermodalitatea, mugikortasun jasangarriaren giltza, sustatzen dugu bete-betean Donostiara beste garraio publikoen bitartez datozen herritarrak hiri barnean mugitzeko dBusen zerbitzuak erabiltzea sustatuz.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Azaroaren 14ko batzordeetan ontzi-aldaketak doakoak izateko aukeraz galdetuta, adierazi zitzaigun tarifen hobekuntza proposamen ezberdinen artean ontzi-aldaketa intermodalen doakotasuna dagoela, udal-gobernuak ez duela begi txarrez ikusten, baina oraingoz ez dela lehentasuna. Horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio GGLA-an ordezkariak dituen udal gobernuari 2018rako Mugi tarifen eztabaidari begira, doako ontzi aldaketen aukera aintzat har dezatela, mugikortasun jasangarria eta intermodalitatea sustatzeko pizgarri sendo bezala.

Donostian, 2016ko azaroaren 18a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia